

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Mercedes Fernández de Bastida Montoya praktiketako langile lan kontratudun izendatzea, musika eskolako musika hizkuntza eta solfeo irakasle plazarako

Ikusi da egiturazko plaza huts hau merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko izapidetutako espedientea: Asparreneko musika eskolako musika hizkuntza eta solfeo irakaslea.

2022ko abenduaren 21eko 146. zenbakiko ALHAOn argitaratu zen alkatearen 2022ko azaroaren 25eko dekretu baten bidez, argitara eman ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak, bai eta deialdi arautzailea ere, lehiaketa bidez goian aipatutako plaza esleitzeko, bat etorritz Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/21 Legean jasotakoarekin. Horien laburpena argitaratu zen 2023ko apirilaren 19ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (93. zk.).

Kontuan hartu da, ALHAOren 113. zenbakian, 2024ko urriaren 4koan, musika hizkuntza eta solfeo irakasle plazaren puntuazioaren behin betiko zerrenda eta esleipen proposamena argitaratu zirela.

Lanpostua behin-behinekoa izango da 6 hilabetez, probaldia edo praktikaldia egin behar baita, hala ezartzen baitu abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 15. oinarriak.

Kontuan hartu da 2024ko abenduaren 30ean egindako bilkura berezian lanpostuen zerrenda aldatzea onetsi zela, musika hizkuntza eta solfeo irakasle plazari dagokionez. Lanpostu horrek lanaldi partzialeko arduraldia izango du, matrikulazioaren arabera.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. h) artikulua emandako esku-menetan oinarrituta, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Mercedes Fernández de Bastida Montoya praktiketako langile lan kontratudun izendatzea, musika eskolako musika hizkuntza eta solfeo irakasle plazarako. (Taldea: A2 taldea. Destino-osagarriaren maila: 26. Titulazioa: musika irakaskuntzen erdi mailako gradua (1966ko plana) edo baliokidea. Arduraldia: lanaldi partziala, matrikulazioaren arabera. Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe).

BIGARRENA. Josu Perez de Villarreal Larrea tutore izendatzea.

HIRUGARRENA. Izendapena ALHAOn argitaratzea.

LAUGARRENA. Ebazpen honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

Araia, 2025eko urtarrilaren 7a

Alkatea

TXELO AUZMENDI JIMÉNEZ

Idazkaria

M. LOURDES MIRANDA LAFUENTE